

opusdei.org

Aurten ere, Ayete Ikastetxe Nagusiko unibertsitarioek ohiko kontzertu solidarioa antolatu dute Donostiako Orfeoiaren parte- hartzearekin etxerik gabeko pertsonen alde

Ekimen honen bidez, Ayete Ikastetxe Nagusiak sendotu egiten du unibertsitarioak zein gizartea sentsibilizatzeko apustua egunero ikusten diren

gizarte-desberdintasuneko
egoeren inguruan
sentsibilizatzeko apustua,
ondoren Donostiako pertsona
behartsuenei lagundu ahal
izateko.

2025 Mar 26

Horretarako, lehenik eta behin,
pertsona horiengana barnetik
hurbiltzeko behar den sentsibilitatea
piztu behar dute, batzuetan, lehen
planoan ez edukitzeagatik, ahaztu
egiten baitira. Eta hori lortzeko
modurik onena kultur jarduera
da, elkartasun kontzertu bat. Horrek,
gainera, talde-lana eta lidergoa
bezalako trebetasun garrantzitsuak
eskuratzeke aukera ematen die.

**Bere aliatuak: Gipuzkoako Caritas,
Donostiako Orfeoia, Musikene eta
antzerki eskola**

XVI. edizio honetarako aukeratutako musika-egitaraua 'Del desarraigo a la luz' izeneko lana izan zen.

Deserrotzearen krisia aztertzen du, gizateriaren historiako etengabeko esperientzia.

Errepertorioan 'Txoria txori', 'Deliver Us', 'Now We Are Free' eta 'Do You Hear the People Sing' bezalako piezak izan ziren, Donostiako Orfeoia interpretatuak, Jose Antonio Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eta Jon Urdapilleta pianistaren laguntzarekin. Gainera, aurtengo nobedade gisa, Dirdira Antzerki Musikaleko Eskolak parte hartu zuen, eta antzezlanen arteko lotura gisa, mikrokontakizunak antzeztu zituen.

**Onuradunak: gizarte-
bazterkeriako egoeran dauden
gazteak**

Diru-bilketa osoa Gipuzkoako Caritasentzat da, zehazki

Hotzaldirentzat: gizarte eta egoitza bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta emateko gaueko harrera zentroa. Atsedenerako espazio bat eskaintzeaz gain, Hotzaldik, esku-hartze sozialeko profesionalek koordinatua, mantenu eta higiene beharrak burutzen ditu. Proiektuak oheak, dutxak, kontsignak, jangela, garbitegia eta egongela ditu, eta 20 urte daramatza martxan.

Horrelakoak izan dira aurreko edizioetako batzuk

- Musikaren bidez beste gazte batzuei laguntzen dieten gazteak
- Mahler babesgabetasunaren aurka
- Hotzari eta goseari aurre egiteko kontzertua
- Naufragoentzako kontzertua
- Kontzertu solidarioa Iraken eta etxerik gabeko pertsonen alde

- Bederatzigarrena, elkartasun
ereserkia

.....

pdf | document generated
automatically from <https://opusdei.org/eu-es/article/aurten-ere-ayete-ikastetxe-nagusiko-unibertsitarioek-ohiko-kontzertu-solidarioa-antolatu-dute-donostiako-orfeoiaren-partehartzearekin-etxerik-gabeko-pertsonen-alde/> (2025 Api 2)